

## AMODIOZKO POEMA BI

### **Gaua eta gatza**

Egunen batean esnatzen banaiz  
zure besoen artean,  
ez presarik izan, ez begiak ireki.  
Emadazu pa masailean,  
Klimten pinturan bezala.  
Ez dira-eta urrun izango huntzorria, lore urrekarak.  
Emadazu musu eskuekin,  
itsuka.

Garbitzaileen kamioiak eramango du,  
benetako zaborrekin nahastuta,  
gure gauaren zelofana.

Gatza emango dizut nik gosari.  
Urre zuria,  
penaren pisuak flota dezan  
ezinezkoaren bainu-ontzi  
erabilian.

### **Ez naiz Wendy**

Nire gorputza da  
mundura lotzen nauen arkitektura.  
Zutik dago  
arkitektura horren hezurdura.  
Mamia emea da;  
azala neu naiz.

Eta ni ez naiz Wendy,  
batzuetan hegan egin arren  
eta peterpanekin jolastea gustatu.

Tipula xehetzeko orduan ere,  
badakit leihotik begiratzen.

Emakume sonbreroduna naiz ni,  
aipatuezin den hori  
Chagallen pinturan bizi eta  
Silvioren abestian hil nahi duena.

Amodio koldarretatik ihesi nabil,  
lapurtutako moto batean.  
Eta bateria jotzen dut ilunpean..

*Miren Agur Meabe*